

Martxoaren 22a, Uraren Mundu Eguna**660 milioi pertsonak ez dute edateko urik eskura**

■ **1.000 haur inguru hiltzen dira egunero urarekin eta saneamendurekin lotuta dauden prebenitzeko moduko beherako-gaixotasunen ondorioz.**

■ **Aurten, Uraren Mundu Egunaren leloa honako hau da: ‘Hondakin-urak, zergatik alferrik galdu ura?’. Nazio Batuek horrekin nabarmendu nahi dute oso premiazkoa dela ura tratatzea eta, ahal den neurrian, ur hori berrerabiltzea**

660 milioi pertsonak baino gehiagok ez dute edateko urik eskura. Eta, Nazio Batuen Erakundearen arabera, 1.800 milioi pertsonak eginkariez kutsatuta dagoen edateko uraren iturria erabiltzen dute, eta horrek milioika pertsonaren heriotza eragiten du planetan. Zehazki, kalkulatu da 1.000 haur inguru hiltzen direla urarekin eta saneamendurekin lotuta dauden prebenitzeko moduko beherako-gaixotasunen ondorioz. Ez dugu ahaztu behar giza jardueren ondoriozko hondakin-uren % 80 baino gehiago ibaietara edo itsasora isurtzen direla elementu kutsatzaileak kendu gabe.

Arrazoi horiek direla medio, Nazio Batuek, aurten, **‘Hondakin-urak, zergatik alferrik galdu ura?’** leloa aukeratu dute Uraren Mundu Eguna (martxoaren 22) dela medio. Horrekin lortu nahi da herritarrak kontzientziaztea ura tratatzeak eta, ahal den neurrian, ur hori berrerabiltzeak duen garrantziaz.

Gurutze Gorriak, Erakunde Humanitario eta pertsonen Eskubideen sustatzaile den aldetik, eta pertsona kalteberenekiko hartutako konpromisoaren arabera, uraren alorreko esku-hartze ugari egiten ditu gure herrialde barruan eta kanpoan.

Gurutze Gorriaren neurriek –barnekoek nahiz kanpokoek– honako honi jartzen diote arreta batez ere: garapen-bidean dauden herrialdeetan uraren erabilera arduratsua sustatzeari, baliabide horren kontsumoari eta baliabide hori zaintzeari buruzko sentsibilizazioari, aliantzak sortzeari edo urari eta saneamenduari buruzko proiektuak abian jartzeari. Horren adibide gisa AMVISaren Futura Planarekiko lankidetzak aipatu behar da, Gurutze Gorriak Gasteizen duen egoitzari “OSO ONDO” ziurtagiriarekin kalifikatu baitute uraren erabilera eraginkorra egiteagatik.

Gurutze Gorriak Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Itsasoko Zaborrak Zaintzeko Programarekin izandako lankidetzak nabarmendu behar da gure herrialdean. Proiektu horren bitartez, adibidez, 2016. urtean 4.200 kilo zabor baino gehiago bildu ziren kostaldeetan, ibaietan eta ur-bazterretan.

Gure herrialdeetik kanpo, Gurutze Gorriak 28 ur-proiektu gauzatzen ditu Amerikako, Afrikako eta Asiako 11 herrialdeetan, 545.000 pertsonaren baino gehiagoren mesedetan.

Gainera, Gurutze Gorriak unitate berezi bat dauka hondamendi naturalek kalte eragindako herritarrei laguntzeko, hain zuzen ere Ur eta Saneamendu Larrialdiei Erantzuteko Unitatea (ERU, ingelesezko sigletan), egunean 225.000 litro ur hornitzeko gaitasuna duena.

Unitate horiek aldeztu aurretik prestatutako eta eguneko edozein unetan prest egon behar duten profesional espezializatuek osatzen dituzte. Sistema hori operatibo eta prestatuta egoteaz gain,

behar bezala paketatuta dago urteko 365 egunetan garraiatzeko eta munduko edozein tokitara eramán ahal izateko.

Ur eta Saneamendu Larrialdiei Erantzuteko Unitateak edateko uren 5 araztegi ditu, baita beharrezkoa den ekipamendua ere (*mahukak, hodiak, ur-andelak, txorrotak, eta abar...*) honako honetarako:

- **Egunean 225.000** litro **ur** bildu, edateko ur bihurtu, biltegitatu eta banatzeko
- **15.000 pertsona** (osasan-zentroak barne) kalitate handiko urez hornitzeko egunero **3 hilabetez**.
- **5.000 biztanleko edo pertsonako** herri baten saneamendu-gaitasuna hobetzea. (*hondakin solidoen kudeaketa, komunen instalazioa, eta abar...*)
- Larrialdiaren ondoren **higiene-ohitura osasungarriak sustatzea** biztanleriaren artean.

ERU horrek honako arlo hauei buruzko ezagutzak dituzten 6 profesional lekuz aldatzen ditu batez beste: kimika, biologia, geologia, iturgintza, elektrizitatea, logistika eta higienearen sustapena. Langile horiek tokiko Gurutze Gorriko edo Ilargi Gorriko boluntarioekin lan egiten dute hasieratik eta etorkizuneko larrialdietan ekipamendua erabili ahal izateko prestakuntza jasotzen dute.

ERUei buruzko informazioa

<http://www.cruzroja.es/principal/es/web/cooperacion-internacional/eru>

IKUS-ENTZUNEZKO BALIABIDEAK

Gurutze Gorriko Telebistaren erreportajea

<http://www.cruzroja.tv/video/9911>

Álvaro García Serrano
Komunikazio Arduraduna

Arabako Gurutze Gorria
Tlfn. 945 22 22 22 luzapena 8 | 678 40 14 43
comunicacionalava@cruzroja.es

www.cruzroja.es | www.cruzroja.tv
fb.com/cruzrojaalava | twitter.com/cruzrojaalava | instagram.com/cruzrojaalava